

MUTURREKO METEOROLOGIA 2003AN
METEOROLOGÍA SEVERA EN EL AÑO 2003

INTRODUCCIÓN.

Se presenta a continuación un resumen del informe de meteorología adversa del año 2003, elaborado por la Agencia Vasca de Meteorología. Se recogen los aspectos más destacados de los episodios de meteorología adversa que afectaron a la CAPV durante este año. Se presenta una breve descripción de los aspectos meteorológicos relativos a estos episodios, adjuntando información de distintos modelos numéricos, además de algunos registros de la red hidrometeorológica del País vasco.

Durante el año 2003, en la CAPV se han registrado 9 episodios de meteorología adversa, de acuerdo a la clasificación empleada por la Dirección de Meteorología y Climatología, en particular se han producido inundaciones, nevadas, tormentas muy fuertes y una ola de calor.

El episodio más destacable, se dio en agosto, cuando durante las dos primeras semanas se registraron temperaturas más altas de lo normal en todo el territorio, alcanzándose temperaturas máximas de 43 °C en diversas estaciones, provocando una ola de calor histórica. Las medias de este mes estuvieron de 3 a 4 °C por encima de la media en muchas localidades y más de 5 °C durante las dos primeras semanas.

Los episodios de precipitaciones no fueron tan frecuentes como otros años, destacando las inundaciones del 4 febrero y las precipitaciones persistentes de los días 6 y 7 de mayo.

Las nevadas cobraron protagonismo durante el mes de enero, dándose dos episodios distintos, el primero entre el 9 y el 11 de enero, con nevadas destacables sobre los 400 m y el segundo menos duradero pero más intenso el 31 de enero, con espesores de unos 25 cm en la Llanada Alavesa.

Los vientos, un año más, han sido muy fuertes en diversas ocasiones, destacando el temporal de vientos muy fuertes del 20 de enero, con rachas máximas que alcanzaron rachas huracanadas en varias estaciones. Destacando Punta Galea, que registró la racha máxima anual de todas las estaciones con 165 km/h.

La mañana del día 19 de febrero se registró una ventisca en la zona oriental de la Llanada Alavesa, con vientos del SE que alcanzaron rachas cercanas a los 100 km/h, que junto con una pequeña nevada, crearon acumulaciones de más de medio metro de nieve, en puntos muy concretos entre Salvatierra y Egino, provocando el corte de la N-I durante varias horas.

SARRERA

2003 urtean jasandako muturreko meteorologiaren inguruan Meteorologia eta Klimatologia Zuzendaritzak egindako txostenaren laburpena duzu esku artean. Laburpen honetan, iaz EAEn nozitutako eguraldi txarreko gertaera aipagarrienak batu dira. Gainera, gertaera horien gaineko alderdi meteorologikoen azalpen xume bat ere taxutu dugu, eredu numerikoei buruzko informazioarekin eta EAeko sare hidrometeorologikoko zenbait erregistroekin.

2003 urtean muturreko meteorologiako 9 gertaera jaso zituen EAek, Meteorologia eta Klimatologia Zuzendaritzak egindako sailkapenaren arabera; uholdeak, elurteak, ekaitz oso gogorrak eta bero-bolada bat.

Dudarik gabe, gertaera aipagarriena abuztuan jaso zen. Lehen bi asteetan, lurralde osoan normala baino tenperatura altuagoak neurtu ziren, zenbait estaziotan 43 °C-ra helduz. Bero-bolada ia historikoa izan zen. Hilabete honetako batez bestekoa, herri askotako batez bestekoa baino 3 – 4 °C gorago egon zen, eta lehen bi asteetan 5 °C gorago.

Ez zen horrenbeste euri-gertaerarik jaso. Hala ere, aipatzekoak dira otsailaren 4an elurraren urtzeak eta euri iraunkorren ondorioz gertatutako uholdeak.

Urtarrilean elurrak protagonismoa bereganatu zuen. Hilaren 9a eta 11a bitartean 400 m-tik gora elurra egin zuen. Hilaren amaieran, 31n hain zuzen ere, berriro ere elurra egin zuen eta aurrekoan baino kantitate handiagoa bota bazuen ere (25 cm-ko lodiera Arabako Lautadan), ez zuen aurrekoak beste iraun.

Haizea, berriro ere, oso gogorra izan zen hainbat aldiz. Aipatzekoa da urtarrilaren 20an neurtutako haize gogorra. Orduan, zenbait estaziotan haize bortitza neurtu zen, Galean adibidez urteko haize-bolada maximoa neurtu zen, 165 km/h-ko abiadurarekin.

Otsailaren 19an, Arabako Lautadako ekialdean hego-ekialdeko haizez osatutako haizete bat izan zen eta haize-boladak 100 km/h-ko abiadurara hurbildu ziren. Hortaz gain, elurra ere egin zuen eta ondorioz, Agurain eta Egino bitarteko zenbait lekutan elurra metro erdiz pilatu zen, N-1-a hainbat orduz itxita mantenduz.